

Txile: bi urte

Bi urte eta «record» asko. Beharbada, goiz da oraindik egoera orokor* baten balantze oso bat egiteko. Balantze hortan, hala ere, zifra asko eta asko agertzen da. Bi urte ez baina hamar urte iragan direla ematen* du: horren* ugariak dira gure jeneralaren obrak!

Pinochetek Atila berria dirudi. Atilak belarra, baina honek demokrazi bizi oro* desegin eta erre eta kiskaildu egiten du. Atila politikoa, hori politika baldin bada.

«Ekonomiazko nahasmendua» konpontzeko eman zuen Estatu kolpea Pinochet jeneralak, beronek esan duenez. I hazko inflazioa 400 %koa zen, aurtengoa 300 %koa izango omen da. Non dira promesak?

«Gizarte nahasmendutik» Txile ateratzeko hartu omen zuen agintea. Bera mintzo oraindik ere. Nola ez da, bada,



Pinochet jenerala
«Atila berria dirudi»

kalea baketsu izango, altxamenduan 15.000 inguru hil ondoren, 8.000 espetxean eduki ondoren, 1.500 desagertu direlarik, eta ia 30.000 txiletarrek desterrura ihes egin ondoren? Kanposainduko bakea.

«Anarkiatik Txile libratzeko» erauzi* zuen Allenderen legezko gobernua. Anarkia zeri erizten* zaio, ordea? Anarkiaren kontra joateko, Kristau Demokrazia bera ere debekatu egin behar ahal da? Edozein politika joko eta elkarte eta gainerako askatasunak oro galerazi egin behar ote, anarkian ez erortzekotan? Defentsako presupos-tua 2tik 10era igan erazi behar ote da, herriaren askatasunak babestu ahal izateko? Ba dakigu, anarkiaren antidotoa diktadura dela. Demokraziarena ere bai, ordea.

Esan bezala, irailean* bi urte pasatu dira, Pinochet agintean jarri zela, indarkeriaz aginteaz jabetu zela. Gerroztik, Txilen giza eskubideak zapalduak eta zanpatuak izan dira. Parlamentuen arteko Batasun batek, 75 nazio

barnean dituela, irailaren 3an protesta bat egin zuen. Protesta horren alde, 73 nazio bozkatu* ziren. Bik ez zuten boturik eman: Argentinak eta Espainiak.

Bigarren urtemuga hau haundikiro ospatu nahi izan du Pinochet jaunak. Jakin dugunez, ospakuntza horietan Espainiako ordezkari militar bat ere izan da. Eta «Medalla al Mérito Militar» eman diote Pinochet jeneralari. (Joan Mari Torrealday)

Pornografiaren pozak eta penak

Pornografia gure gizarte moduaren datu bat gehiago besterik ez da gaur egun. Gure gizarte modua aipatzean, elkar uler dezagun. Ez naiz ari Pirinioez* honanzkoaz. Europako gizarte permisiboaz baizik.

Kalenturarekin bezala gertatzen da pornografiarekin ere. Noizean behin —urteko hilabete eta sasoin jakin batzutan, maizenik*— sukar* kolpeak jotzen du. Sukar-raren goraldi horietan gaixoatasuna da hizpiderik* nagusia. Berdin gertatzen da pornografiarekin ere. Frantzia, esate baterako, azken urteotan, urteroko erritmoa hartu du pornografiaren inguruko eztabaidak (norbaitek hor ere «ezbaiketa»* esan beharko luke). Sukar kolpe planifikatuak dirudite. Polemika honen inguruan puntutxo batzu ikus ditzagun.

Agi* denez, eztabaida-piztaileak filme batzu dira azken urteotan. «Pariseko azken tangoa» delakoaren azken konpasak ixildu* zireneko, hor ikusten dugu «Emmanuelle» mundu erotikotik paseiatzen. «Histoire d'O» da oraingoa, azkenengoa. Eta horien artean, inguruan eta azpian, kategoria gutiagoko filme pila, ehundaka. Parisen inguruan, bi filmetarik bat pornografikoa omen da.

(Ez dut, orain eta hemen, pornografiaren eta erotismoaren arteko desberdintasunaz ihardun nahi. Ba da diferentziarik, kalitatearen eta estetikaren eta tratamenduaren aldetik, nahi bada. Baina lehen, inoiz, diferentzia azpimarkatzen saiatu banaiz ere, gaur egun parekatzera eta denak zaku beretsuan sartzerako joera dut, agian* eskarmentuarengatik,* erbiaren ordezkaria sartzeko ohitura gehiegi baitago mundu hortan. Gainera, oro* har eta besteak beste, horren* bereizgarriak eta erabakitzaileak ote dira, gero, diferentziak?)

Pornografia eta etika

Zalantzarik gabe, gizarte modu bakoitzak ba du bere etika, berorren jokabide morala-edo izenda genezakeena. Eta bidezkoa* da etika hori leku guztietan arras* berdina ez izatea. Aipaturikoa konparazio batez adieraziz, esan dezagun, Mosku, Madril eta Parisen artean ba direla desberdintasunak, eta nolakoak! Nolabait zehazteko, eta arinkerian erori* naizela jakinik ere, esan dezakegu, lehenengoa puritanoa eta bigarrena moralista diren bezala, hirugarrena liberal permisiboa dela. Lehenengo bietan, pornografiarentzat ez dago lekurik, ofizialki bederen.* Ez bietan argumentu beragatik, baina espektakulu mailan ondorioak berdintsuak dira.

Frantzia bezalako herrietan ez doa gauza bide beretik. Gizartea mugatzen duten legeak, zabalagoak dira, elastikoagoak. Pornografiari dagokionez, esaterako,* Giscarden Gobernuaren erizpide* erabakitzailea eta determinatzailea ez da etikoa edo morala, estetikoa baizik, hots,* gau-